

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2007/08 denboraldia

25 ZK.DUN GUTUNA

EMKUMEZKOEN NAZIONAL MAILARAKO IGOERA-ALDIA

2008/09 denboraldian Euskadiko Futbol Federakundetik Emakumezkoen Nazional mailara igoko den taldea izendatzeko eta Batzar Nagusian hitzarturiko txapelketa-oinarriei jarraiki, goian aipaturiko igoera-aldia antolatu da, ondoko arauak oinarri harturik:

1. Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko emakumezkoen goreneko mailan lehenengo postuan sailkaturiko taldeak:

- AURRERA DE VITORIA C.D.
- BIZKERRE F.T.
- INTXAURDI K.E.

2. Txapelketa-sistema

Igoera aldia itzuli biko Liga-sistemaren bitartez jokatu da.

3. Datak

Partidak ondoko egunetan jokatu dira: maiatzeko 11, 18 eta 25 eta ekaineko 1, 8 eta 15.

.../...



- 2 -

4. Partiden Jardunaldiak eta Ordutegiak

Partiden jardunaldi eta ordutegi ofizialak honako gutunean zehaztu dira. Hala ere, partida antolatzen duen klubak larunbat arratsaldera aurreratu dezake, aurkariari baimenik eskatu gabe. Hori alde batera utzirik, jardunaldia aldatu nahi duen klubak Euskadiko Federakundeari zazpi egun lehenago jakinarazi behar dio, betiere aurkariari baimena eskaturik. Aurkariak ere era berean adierazi behar du baimen hori.

Partidak hasteko ordutegiak hurrengo tarteetan artean finkatuko dira

16.30 tik 18.30 ra	larunbata arratsaldean
11.30 tik 12.30 ra	igande goizean
16.30 tik 18.30 ra	igande arratsaldean

Partidaren ordutegia nahiz jokalekua Euskadiko Futbol Federakundeari jakinarazi behar zaizkio (Tel.: 94-4731900 eta Fax 94-4732221), norgehiagoka jokatu baino zazpi egun lehenago. Aurreko guztia talde aurkariari ere jakinarazi behar zaio.


5. Jokalarien aldaketak

Partidetan, gehienez, bost aldaketa egin ahalko dira, gehienezko zazpi ordezkoren artean.

6. Berdinketak

EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 35. Artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

.../...



- 3 -

7. Epaileak

Partidak zuzentzeko epaileak zelaiaren jabea den taldearen Lurralde Federakunde berekoak izango dira, eta gastuak partida antolatzen duen taldearen kontu izango dira.

8. Diziplina Batzordea

Aldi honetan parte hartzen duten taldeei zein horietako jokalaria, zuzendari nahiz buruei dagozkien diziplina arloko gorabeheretan ez da etenik egingo aldia hasterakoan, ondokoei dagokienez: zigorrak betetzea, arau-hausteetan berriro jaustea, txartelak metatzea nahiz bestelako ondorioak.

Partidak bukatutakoan, epailearen aktak Euskadiko Futbol Federakundera bidali behar dira, Diziplina Batzordeak erabakia hartu eta jakinaraz dezan, hala behar izanez gero.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbo, 2008ko maiatzaren 2a

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA


IDAZKARI NAGUSIA



FASE DE ASCENSO A LIGA NACIONAL FEMENINA **EMAKUMEZKOEN NAZIONAL MAILA IGOERA-ALDIA**

EGUTEGIA / CALENDARIO

MAIATZAREN 11AN / 11 DE MAYO

INTXAURDI - BIZKERRE

AURRERA VITORIA
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

MAIATZAREN 18AN / 18 DE MAYO

AURRERA VITORIA – INTXAURDI

BIZKERRE
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

MAIATZAREN 25AN/ 25 DE MAYO

BIZKERRE – AURRERA VITORIA

INTXAURDI
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 1AN / 1 DE JUNIO

BIZKERRE - INTXAURRI

AURRERA VITORIA
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 8AN / 8 DE JUNIO

INTXAURDI -AURRERA VITORIA

BIZKERRE
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

EKAINAREN 15AN / 15 DE JUNIO

AURRERA VITORIA - BIZKERRE

INTXAURDI
(ATSEDENA)
(DESCANSA)

-O-O-O-O-O-O-O-O-O-O-